LANEKI Jakinbai buletin@

LNKi 2022/ 7. buletin@ IRAILA

Zatozte Hizkelan VII jardunaldira!

Izena emateko esteka: IZENA EMAN

LANBIDE HEZIKETAKO MATERIALAK ITZULTZEKO EDO ZUZENTZEKO ESKAERAK EGITEKO DEIALDIA

2023an ikasmaterialak itzultzeko edo zuzentzeko eskaerak egiteko epea zabaldu da

Eskaerak egiteko epea: urriaren 28a bitarte

Egin eskaerak galdetegia betez: ESKAEREN GALDETEGIA

Eskaera egin aurretik www.jakinbai.eus atarian, Eima katalogoan edo beste euskarriren batean argitaratuta dagoen edo antzeko ikasmaterialik badagoen begiratu.

Ikasmateriala izan daiteke Goi Mailako Heziketa Ziklokoa, Erdi Mailako Heziketa Ziklokoa edota Oinarrizko Lanbide Heziketakoa.

Itzultzeko ikasmaterialak aukeratzeko orduan irizpide hauek izango ditugu kontutan:

- Euskaraz ematen den modulua izatea
- Goi Mailako Heziketa Zikloa izatea (goi mailarako eta erdi mailarako, bietarako, egokiak diren materialek lehentasuna dute)
- Euskaraz matrikulatutako ikasle kopurua
- Euskarazko materialik ez izatea
- Liburu osoa izatea
- Irakasle artean adostua izatea
- Ziklo batetan baino gehiagotan erabiltzea

MATERIAL BERRIAK

jakinbai.eus atarian egin dira argitalpen berriak,
OSORIK BUKATUTA

Esku-hartze sozialaren testuingurua

Esku-hartze sozialaren bidez, egoera ugaritan ematen da arreta pertsonei gizarteratzen laguntzeko asmoz, baina zertan datza eskuhartze soziala? Zehatzegiak izan gabe, honela defini daiteke esku-hartze soziala: behar bezala planifikatutako edozein ekintza edo ekintzamultzo, pertsonen edo taldeen kondizioak (bereziki, desabantaila sozialeko egoeran daudenen kondizioak) hobetzeko xedea duena. Beste galdera batzuek aztergaia hobeto ulertzen lagunduko digute: Zer dira gizarteratze- eta birgizarteratze-prozesuak? Zein dira pertsona edo talde hartzaileak? Nork gauzatzen ditu prozesuok? Nola, noiz eta non? Gizarteintegratzaileek zer eginkizun betetzen dute prozesuotan? Galdera horiei erantzuteak esku-hartzearen testuingurua zehazten lagunduko digu, eta, hain zuzen ere, horretan arituko gara liburu honetan.

Maramara* taldea itzulpen zerbitzuak — 2022/06/24

Sistemen integrazioa

Automatizazio industriala eta programazio sekuentziala integratzeko, konfiguratzeko eta mantentzeko prestakuntza.

Maramara* taldea itzulpen zerbitzuak — 2021/08/17

JAKINBAI ZIURTAGIRIA ★ OINARRIZKO EDUKIA ★

Motorrak

Euskalgintza — 2021/08/20

JAKINBAI ZIURTAGIRIA ★ OINARRIZKO EDUKIA ★

SOLDATZAILEAREN ESKULIBURUA

Soldatzailearen Eskuliburua bost jakintza-talde handitan dago egituratuta: 1. Soldaduraren teknologiaren alderdi orokorrak 2. Aplikazio handieneko ebaketa- eta soldatze-prozesuak 3. Material metalikoen oinarrizko alderdiak 4. Eraikuntza soldatuetan gehien erabiltzen diren materialen alderdi espezifikoak 5. Eraikuntza soldatuei buruzko alderdi orokorrak eta horietan aplikatu beharreko arauak

Maramara* taldea itzulpen zerbitzuak — 2022/02/16

OINARRIZKO EDUKIA ★

Material berriak hemen: jakinbai.eus

MATERIAL BERRIAK

jakinbai.eus atarian egin dira argitalpen berriak, 2022ko itzulpenen LEHEN ATALAK:

Prozesu fisiologikoak eta higiene-prozesuak irudi pertsonalaren alorrean

Definizioz, higienearen helburua da osasuna zaintzea eta gaixotasunak prebenitzea.Osasunarekin zuzenean lotuta dago, eta, beraz, lan-eremuan, segurtasunarekin.Irudi pertsonalaren sektorean, higienea ez da soilik ikuspegi pertsonaletik bete beharrekoarau etiko bat; horrez gain, betebehar legal bat da higienea, lantokietan era askotako arriskuak prebenitzeko administrazio publikoek ezarritako arauetan xedatutakoa.

Maramara* taldea itzulpen zerbitzuak — 2022/07/21

OINARRIZKO EDUKIA

HACKING ETIKOA

Pertsona batek eraso egiteko asmoarekin sartu nahi duenean zibersegurtasunaren munduan, hasi ahal izateko behar duen informazioa topatzea izaten da bere arazo nagusietako bat. Ez informazio gutxi dagoelako, justu kontrakoagatik baizik: informazio gehiegi dago, eta horrek nolabaiteko frustrazioa eragin dezake, kontu konplexuegiekin hasteagatik edo informazioa egituratuta ez egoteagatik. Hackingaren munduan sartu nahi duten pertsona guztiei beharrezko eta oinarrizko kontzeptuak ulertzen laguntzea eta prozesuan zehar jarraitu beharreko metodologia ezagutaraztea da liburu honen helburua, eta, halaber, fase bakoitzean ezinbestekoak diren tresna batzuk eskaintzea. Liburuaren gaia zein den kontuan hartuta, tarteka teknika aurreratuak edo oso espezifikoak aipatzen dira, baina ez da horietan gehiegi sakontzen. Dena den, liburuko kontzeptuak barneratu ondoren, irakurleak askoz errazago topatu ahal izango du alderdi horietan sakontzeko informazioa.

Maramara* taldea itzulpen zerbitzuak — 2022/08/09

OINARRIZKO EDUKIA

BALIABIDE TEKNIKO AUDIOBISUAL ETA ESZENIKOAK

Maramara* taldea itzulpen zerbitzuak — 2022/09/08

OINARRIZKO EDUKIA

Azterketa hematologikoen teknikak

Liburu hau Laborategi Kliniko eta Biomedikoko goi-mailako heziketa-zikloko Azterketa hematologikoen teknikak lanbide-modulua egiten ari diren ikasleentzako da (LOE). Diagnostikoaren arloan erabili ohi diren teknikak egiteko eta ulertzeko, ikasleak hematologiaz menderatu beharreko kontzeptuak lantzen ditu liburuak.

Euskalgintza — 2022/08/05

OINARRIZKO EDUKIA

Trebetasun sozialak

Elhuyar — 2022/08/05

Sistema mekatronikoen adierazpen grafikoa

Elhuyar — 2022/08/05

Barneko instalazio elektrikoak

Euskalgintza — 2022/08/05

JAKINBAI ZIURTAGIRIA

OINARRIZKO EDUKIA

Turismo-gidaritzako eta -laguntzako prozesuak

Euskalgintza — 2022/08/05

OINARRIZKO EDUKIA

Material berriak hemen: jakinbai.eus

LANBIDE HEZIKETAKO EGUNEAN BEHIN

EAEko Lanbide Heziketako ikasleekin, Egunean Behin lehiaketa izango da, sari eta guzti



- Ikastetxeko ikasleak informatu eta parte-hartzera animatu!
- Ikastetxean jartzeko kartela, hemen: KARTELA

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

Aukeratu zure rola!

IZEN EMATEA: euskaraldia.eus

AHOBIZI naiz

Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dut uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut. Batzuetan zaila izan arren, elkarrizketa elebidunetan ere euskarari eusten diot kideek ulertzen dutenean.

BELARRIPREST naiz

Aldiro erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin. Agian, beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek niri euskaraz hitz egitea nahi dut, eta horixe eskatzen diet modu esplizituan.

Ahobizi edo Belarriprest rola aukeratu eta izena eman: IZENA EMAN

EUSKARALDIA

PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK

BATXILERGOA eta LANBIDE HEZIKETA